



# txakolin, txakolin, txakolinak on egin!

Jende ugari batu zen atzo Getarian ospatutako Txakolin Egunerera; aurtengo uztia dastatzeko aukera izan zuten bertara bildutakoek



III. Nagore Rodriguez

**Goxoa zen eguraldia**, baina goxogoa txakolina. Prozesu osoan bezalaxe, atzokan ere, eguraldia lagun izan zuen Getariako Txakolinak, uztaren aurkezpenaren egunean. Eguzkitsu esnatu zen goiza, eta laneguna izanagatik ere, jende ugari bildu zen Getariara, San Anton eguna ospatzera. 1.500 txakolin botila zituzten zain, eta ez zuten hitzordua huts egin, autobusak jendez gainezka iritsi ziren frontoi parera.

Txakolinaren prozesioa 12:00ak pasatxo heldu zen frontoian jarrita zuten karpa handira. Sarreran jende ugari zuten zain, txakolina

probatzeko irrikan. Baina botilak zabaldu aurretik, aurtengo uztia aurkeztu eta Rafael Garcia Santos eta Andres Aierbe omendu zituzten, Mikel Elizegi telebistako aurkezleak gidatutako ekitaldian.

Aurtengo «kalitate eta kantitate oneko uztia» izan dela azaldu zuten Getariako Jatorri Izeneko Txakolinaren Arautze Kontseiluko kideek. «Zapore finekoa; eta garratzasunean eta gradutan orekatua»; halaxe aurkeztu zuten aurtengo txakolina.

Txakolinarekin topa egin aurretik, Joxe Joan Gonzalez Txabarri Gipuzkoako diputatu nagusia eta Iñaki Txakola Getariako Txakolina Arautze Kontseiluko lehendakariak orogari bana eskaini zieten omendutakoak.

Rafael Garcia Santos sukaldaritzako kritikariak eta Andres Aierbe Urrietako mintegi arduradunak «pozik» jaso zuten omenaldia. «Oso omenaldi hunkigarria izan da, bihotzeraino iritsi zait. Txakolina edaten dudana bakoltean egun honetaz gogoratuko naz», adierazi zuen Garcia Santosek. Garcia Santos bezain hunkituta zegoen Andres Aierbe ere, lan taldea izan zuen gozoan orogaria jasotzerakoan. «Hamar urtean lan handia egin dugu talde osoak, eta txakolinari emandako laguntza modu honetan eskertu nahi izan digute».

Txakolina probatzen lehenengoetarikoak izan ziren bi omenduek. «Frutaren gustu izugarria du aurtengoak, freskoa, eta lur usain handikoa da», halaxe iruditu zitzaion Garcia Santosi. «Oso ona, eta kalitatekoa», berriaz, Andres Aierberi, «urtetik urtera geroz eta hobea».

Dantzariak aureskua eta txakolin dantza eskaini zizkieten omendutakoak. Eta ekitaldiari amaiera emateko, Sebastian Lizasok eta Andoni Egañak bertso bana kantatu zuten. Konparazio polita egin zuen Egañak: «Agintaria eta txakolina ona edo barra den jakiten zail da herriak probatu arte». Halaxe egin zien gonbita zain zeuden herritar eta kanpotar guztiei. Orduan zabaldu zituzten botilak 17 upeltegitarako ordezkariak, eta han bildutakoek ez zuten asko itxaron ezterria bustitzeko, frontoian eta plaza jarritako mahaletan batetik bestera ibili ziren, txakolin onenaren bila. Edariari laguntzeko, pintxoak ere izan zituzten aukeran. Giro paregabean, trikitilaren doinuarekin festa izugarria ospatu zuten kostaldeko herrian. Bat baino gehiago bura ondo berotuta eberkatu zen atzo, eta ez eguzkiarengatik bakarrik!



## TXAKOLINA DATUEAN

- 17 upeltegi daude jatorri izenaren barruan.
- 177 hektarea dituzte egun, baina plan estrategiko bati esker, 200-220 hektareara iristeseko espero dute.
- 2 milioi mahats kilo inguru jaso dira.
- 1.800.000 botila merkaturatuko dira.
- 1.500 botila inguru zabaldu zituzten atzo.

||| Gustum edan zuten txakolina Getariara bildutakoek. argazkiak: gari garrasok / argazki pres